



**8<sup>TH</sup> EUROPEAN CONFERENCE ON  
SUSTAINABLE CITIES & TOWNS**

BASQUE COUNTRY | BILBAO | 27 - 29 APRIL 2016

[basquecountry2016.eu](http://basquecountry2016.eu)

EUSKAL ADIERAZPENA

## **Bide Berriak Europako Hiri eta Herrientzat**

hiri produktibo, jasangarri eta erresilienteak sortuz, bizitzeko egokia den Europa inklusibo batentzat

# Hitzaurrea

## Nondik gatzoz

Orain dela 20 urte baino gehiago, Europako Hiri eta Herri Jasangarrien 1. Konferentzian, Europako hainbat hiri eta herritako alkateek **Aalborgeko Karta** aurrendaria onartu zuten eta Europako Hiri eta Herri Jasangarrien Kanpaina abiatu zuten. Nazio Batuen Rio de Janeiroko Ingurumen eta Garapenari buruzko 1992ko Konferentziaren eta Europar Batasuneko Hiri Ingurunearen Talde Adituaren emaitzetan inspiratuta, eta Europako Tokiko Gobernuen Sare nagusien sostenguarekin, kanpaina garatu eta tokiko gobernuek eskala handian izandako lehenengo mugimendu bilakatu zen, konpromiso zehatzekin eta euskarri sendoko egiturarekin, Europako Batzordeak lagunduta. Tokiko Agenda 21eko prozesu-kopuru handia garatu zen Europan zehar, ikuspegi eta ekintzak itxuratuz Europako hirien etorkizun jasangarrirako. Europako zenbait lekutan, eskualdeko eta nazio mailako programek Tokiko Agenda 21en mugimendua sostengatu dute, bai egitura aldetik eta bai finantziario aldetik. Lehenengo hamarkada horretan, parte-hartzearen plangintza eta ingurumen-alderdiak lehenetsi ziren.

10 urte geroago, 2004an, Nazio Batuen Johannesburgoko Rio+10 Goi Bileraren ostean, emaitzak ezarri eta aurrerapenak neurtuko zituen erreferentziazko egitura argi baten beharra islatuta geratu zen **Aalborgeko Konpromisoetan**. Hiri ugari haien konpromisoak garatzen hasi ziren, eta, horri lotuta, adierazleak eta kudeaketa-sistemak eztabaidatzen hasi ziren konpromiso horien inplementazio eta monitorizaziorako. Garai hartan, garrantzitsuena zen mekanismoak inplementatzea, baliabideak eraginkortasunez erabiltzea eta baliabideak gizarte-zerbitzu eta ongizate bihurtzera zuzendutako prozesuak garatzea.

## Alkateen Ituna eta Europako Hiri Agenda

2008an, **Alkateen Ituna** eratzearen bidez, gobernantza eredu berri bat abiatu zen Europan, Europar Batasuneko eta tokiko politika mailak zuzenki konektatuz. Gaur egun, ekimen honek Europear

Batasunaren helburu klimatiko eta energetikoak borandatez ezarriko dituzten milaka tokiko-agintari eta eskualde-agintarien bideak lotzen ditu. Oraindik ere eztabaidatu behar da ea gobernantza eredu hori erreproduzitu daitekeen Energia eta Klimaren eremutik harago.

2016a **Europar Batasunaren Hiri Agenda** martxan jartzeko urtea da. Haren helburua da hiri-politikak hobeto integratzea Europar Batasunean, eta lankidetzarako forma berriak sortzea tokiko gobernuen, Europar Batasunaren eta Europako Batzordearen artean. Egitura horrek 2016ko maiatzaren amaieran eratutako Amsterdango Itunaren sostengua du.

## NBEren marko berria

2015eko irailean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 17 **Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)** onartu zituen, hiriekin eta hiri-eremuekin zerikusia duen 11. helburua barne sartuta. GJHek Milurtekoko Garapen Helburuen (MGH) logika eta espirituari usten diete, Nazio Batuen 2030rako Garapen Jasangarrirako Agenda unibertsalaren bidean.

NBEren kide diren estatu guztiei zuzentzen dira, eta ikuspegi integral bat hartzen dute nazioarteko garapenari buruz eta giza bizitza gure planetan iraunarazteari buruz. GJHek gai berriak hartzen dituzte barne, eta beren ikuspegi berriak sistema integratutzat hartzen ditu ingurumena, ekonomia eta gizartea, elkarren artean lehiatzen diren zutabe bereizitzat hartu beharrean, Produkzio Jasangarrian eta Kontsumo arloetan gertatzen den bezala.

2015eko abenduan, NBEren Parisko Klima Aldaketari buruzko Goi Bileraren baitan egindako Alderdien arteko Konferentzian (COP 21), klima-akordio global bat lortu zen berokuntza globala 1,5°C eta 2°C bitartera mugatzeko. Erreferentziazko beste nazioarteko akordio batzuekin batera, **Parisko Klimari buruzko Akordioa** da klima-ekintzaren oraingo nazioarteko egitura, gobernatze-maila guztietan.

NBEren 2014ko Pariseko Klimari buruzko Akordioan, NBEko Idazkari Nagusiak eta bere Hiri eta Klima Aldaketarako Mandatari Bereziak **Global Compact of**

**Mayors** (Alkateen Itun Globala) eratu zuten. Hiri sare nagusien laguntzarekin batera, Itunak hirien elkar ekimenen impaktuak bideratzen dituen plataforma bat ezarri du, isuriak eta klima arriskuak neurtzen dituen bai eta hirien ahaleginetan ebaluazio publikoak koherenteak eginda ere. Harrezkero, mundu osoko milaka hiri atxiki zaizkio Compact of Mayors ekimenari.

Agian inoiz baino modu agerikoagoan, akordio horiek ikusmolde bat konpartitzen dute, alegia, badirela hiri, herrialde, kontinente eta gure planetako pertsonen bizi-kalitatea babesteko errespetatu behar diren muga global batzuk. Nolanahi ere, guretzat garrantzitsuagoa da aitortzea orokorrean ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren aldaketek gizartearen eraldaketa integrala eskatuko dutela, hiri-gizarteetan eragin sakona izango duten aldaketa sozial, kultural, ekonomiko eta teknologikoak barne sartuta.

## Europako Hiri eta Herriak

Hirietako agintariei, erabakiak hartzen dituztenei, interes-taldeei eta herritarrei eskatzen zaie eraldaketa hori diseinatu eta itxuratu dezatela, nahiz eta Europa oraindik ere ez den atera krisi ekonomiko eta finantzariotik eta gure herrialdeek langabeziaren, zein aberatsak eta pobreak gero eta gehiago urruntzen dituen etenaren erronkak gainditu behar dituzten. Gainera, gure gizarteek gure inguruneko eskualdegatzakei aurre egin behar diete, bai horien jatorrian dagoen desberdintasun ekonomiko eta sozialari, eta bai horren ondorioz Europarantz datorren immigrazio gero eta handiagoari.

Gaur egun, erronka horiek gainditu ahal izateko, eskema itxietatik kanpo pentsatu behar dugu eta bide berritzaileak aurkitu gure gizarte zibilak ekonomikoki eta sozialki inplikatzeko, batez ere tokiko mailan. Hala, irtenbide jasangarriak aurkitu beharko ditugu hiri eta eskualdeetan sortzen den balio ekonomikoa handitzeko, tokiko biztanleriaren onurarako. Inspirazioa, kontzientziario handiagoa eta hezkuntza behar ditugu, eta baita ideia berriak eta berrikuntza teknologiko eta soziala ere; halaber, politikari, enpresari eta herritar arduratsu gisa inplikatu behar gara, guztion artean gure etorkizuna babesteko.

## Etorkizunerako bide berriak definitu behar ditugu!

# Geuk, Europako Hiri eta Herrietako Alkate eta Ordezkariorik

Geure biztanleriaren eta etorkizunekoaren ongizatean gure erresponsabilitatea onartuz, eta geuro tokiko sustapenak, bizimoduak eta baliabide kontsumoak dituen dimentsio globala ere.

**Aitortzen dugu** gure gizarteek aldaketa teknologiko, sozioekonomiko eta soziokulturala behar dutela, gure biztanleriari bizi-kalitate egokia segurtatzeko; aldi berean, beharrezkoa da errespetatzea gure tokiko ekosistemen eta ekosistema globalen mugak, eta eskura dauden baliabide naturalak.

### Agenda

Eraldaketa beharrezkoa dela uste dugu helburu hauek lortzeari begira:

1. gure energia-sistemak deskarbonizatzea eta osoko energia-kontsumoa murriztea,
2. hiri-mugikortasuneko eredu jasangarriak eta guzientzako irisgarritasuna sortzea,
3. biodibertsitatea eta zerbitzu ekosistemikoak babestea eta sustatzea,
4. berdeguneen eta esparru naturalen erabilera murriztea,
5. ur-baliabideak eta uraren zein airearen kalitatea babestea,
6. klima-aldaketara egokitzea eta hondamendien arriskua murriztea,
7. esparru publikoa hobetzea, bizikidetzarako ingurune seguru eta dinamikoak sortzeko,
8. etxebizitza nahikoak eta egokiak eskaintzea herritar guztiei,
9. gizarte-inklusioa eta gizartearen sektore guztien integrazioa bermatzea,
10. gure tokiko ekonomiak eta tokiko enplegu-aukerak indartzea.

# Gure nahia da sostengatzea eta azkartzea...

## ... Eraldaketa soziokulturala:

**“Jasangarritasunaren kultura” garatuko dugu** eta gure aurrekontuetan eta hezkuntza-sistemetan islatuko dugu; zerbitzu municipalak aukera ekitatiboetan oinarrituko ditugu, adina, erlijio, arraza edo generoaren arabera ezberdintasunik egin gabe;

**Gure herritarrak inplikatuko ditugu** modu aktiboan, plangintza parte-hartzaitetik inplementazio parte-hartzailerara pasatuz, ikuspegi berriak bultzatuz eta erabiliz, hala nola baterako produkzioa, baterako diseinua eta baterako berrikuntza;

**Mugak birplanteatuko ditugu** zerbitzu, jarduera eta zeregin publiko eta pribatuen artean, eta inplikazio pribatu eta zibikoa bultzatzen saiatuko gara;

**Gizarte-berrikuntza sustatuko dugu**, baita gizarte-enpresak eta konpromiso zibikoa ere, talde baztertuen eta immigranteen hezkuntza, prestakuntza eta gizarte-inklusioa bultzatzeko;

**“Trukearen ekonomia”, “kolaborazio-ekonomia” edo “ekonomia zibikoa” landuko dugu**, eta baita ekintzaitza, inplikazio zibikoa eta gizalteraldaketaren ideiak uztartzen dituzten beste ikuspegi batzuk ere.

## ... Eraldaketa Sozioekonomikoa:

**Aurrean ditugun erronkak aukera bihurtuko ditugu** gure tokiko ekonomientzat, garrantzi handiko alorretan, hala nola energia berriztagarrien ekoizpen deszentralizatua, tokiko janari-ekoizpena, garraioari buruzko kontzeptu berritzaileak, gizarte zerbitzuei buruzko ikusmolde berriak eta beste hainbat berrikuntza;

**Tokiko eta gertuko balio-kateak sortuko ditugu** eta enpresen arteko lankidetzak berritzailea erraztuko dugu, tokiko eta eskualdeko balioa atzemateko, tokiko mailako inbertsio- eta enplegu-aukera txikiak sortzeko, eta diru-sarrerak publikoak handitzeko;

**Ikuspegi berritzaileak aplikatuko ditugu** finantziarioan, hala nola finantziario kolektiboa (crowd-funding), finantziario kooperatiboa, finantziario publiko eta pribatuaren konbinazioa edo moneta osagarriak;

**Ingurumen-errendimendu handiko produktu eta zerbitzuak kontratatuko ditugu**, eta horren inguruko erabakiak hartzerakoan kontuan hartuko ditugu horren inpaktu sozial eta ekonomikoak;

**Ekonomia zirkularrera zuzendutako garapena bilatuko dugu**, baliabide naturalak kontsumitzeko beharra eta hondakinen sorrera murrizteko xedez.

## ... Eraldaketa teknologikoa:

**Teknologia berri eta adimendunak aukeratuko ditugu** zentzutasunez, beharrezkoak ditugun eraldaketa soziokultural eta sozioekonomikoak bideratzeko eta herritarren zein ongizate publikoaren interesei erantzuteko;

**Erosketa publikoa erabiliko dugu** public procurement as an instrument to accelerate the teknologia berritzaile eta jasangarriak azkarrago merkaturatzeko tresna gisa, eta segurtatuko dugu haien aplikazioak eskariari erantzuten diola eta tokiko irtenbide deszentralizatuak ahalbidetzen dituela, aurrez aurre ditugun erronkei begira;

**Gure tokiko gizartearen eten digitalari aurre egingo diogu**; horretarako, azpiegiturak eta laguntza egokia eskainiko ditugu, talde guztiek eskuratu ahal izan ditzaten, berdintasunez, informazioa eta zerbitzu digitalak;

**Sarbide libreko estandarrak sostengatuko ditugu** eta bildutako datu publikoak zainduko ditugu, eragile pribatuek kontrolatu ez ditzaten; aldi berean, gure tokiko gobernuen esku jarriko ditugu, gure herritarrei zuzendutako politikak eta zerbitzuak hobetzeari begira;

**Gure politikak, kudeaketa publikoak eta gobernantza-sistemak prestatuko ditugu**, eta baita gure hiri-gizarteak ere, teknologia berritzaile eta adimendunek sortzen dituzten aldaketa soziokulturaletarako, inpaktu positiboak maximizatzei begira.

# Eraldaketa horren partaide aktiboak izateko...

## ... Hauxe eskatzen diegu nazio eta eskualdeetako gobernuei eta Europar Batasunari:

**Nabarmen handitu dezatela** hiri-garapenarekin zerikusia duten politiken integrazioa, bai modu horizontalean (sail eta ministerioen artean) eta bai modu bertikalean (gobernantzaren maila guztietan);

**Arau-esparru, pizgarri eta zerga komunak eskain ditzatela** beharrezkoa den eraldaketa bultzatzen duten merkatu-baldintzak eta jokaleku garden eta uniformeak sortzeko, inplikaturako eragile pribatu eta publiko guztientzat; eta ezabatu ditzatela trantsizio hori eragozten duten esparruak, pizgarriak eta zergak;

**Bultzatu eta sostengatu ditzatela** komunitateak zuzendutako ekimenak eta ikuspegi deszentralizatuak eta arau-esparru eta merkatu-baldintza komunitetan oinarritutako irtenbideak, tokiko balio-kateak eta balio-atzematea sostengatzeko;

**Helburu politikoak uztartu ditzatela** hiri-garapen eta -azpiegitarako eskura dauden programa finantzarioekin eta laguntza-mekanismoekin;

**Gomendatu diezaietela** finantza-erakunde eta banku publikoei eskala txikiko inbertsioei lagundu diezaietela, beren oraingo muga azpitik egon arren, eta segurtasun-mekanismoak eta berme-funtsak eskain ditzatela komunitatean oinarritutako inbertsioetarako.

## ... Prest azaltzen gara:

**Nazio eta eskualdeetako gobernuei laguntzeko**, eta baita Europar Batasunari ere, Nazio Batuen GJHak eta Parisko Klimari buruzko Akordioa inplementatzeko lanean, Europar Batasunaren Hiri Agenda beren helburuekin uztartzen laguntzeaz batera;

**Ekintza Eraldatzaileak tokiko mailan hasteko** eta inplementatzeko, lehen aipaturako 15 bideetan;

**Gure Ekintza Eraldatzaileak monitorizatzeko eta dokumentatzeko** eta Europako Hiri Jasangarrien Plataformaren esku jartzeko, haien erreproduzioari begira: [www.sustainablecities.eu](http://www.sustainablecities.eu)

## LAGUNTZAILEAK



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



Gonbidatu nahi zaitugu Euskal Adierazpena onartzera.  
Informazio gehiagorako, mesedez kontaktatu [info@sustainablecities.eu](mailto:info@sustainablecities.eu)

[basquecountry2016.eu](http://basquecountry2016.eu)



[#BasqueDeclaration](https://twitter.com/BasqueDeclaration)

Jarraitu azken albisteak Twitterren: [@sustain\\_cities](https://twitter.com/@sustain_cities)